

Drogeteniturririko erredaktore, kolaboratzaile, publizista eta banatzaileak.

- Deba Barreneko euskarazko 6 herri aldizkarixen gaiñian ein dozu zure doktore-tesia. Herritarrendako, erreferente bat dira?

Nik baietz esango nuke. Herri desberdiñetako lantalde eta zuzendarixei galdera hori ein dotsietenian aho bezte baietz erantzun dostie.

Guriaren kasuan, nere esperientzia propixuak be halan erakusten dosta: honek urtitan gero eta gehixao izan dira euren ekitaldi edo taldien informaziñua emon guran aldizkarira hurreratu diran herritarrek. Termometrua jartzeko beste tresnetako bat publizitatia da eta 2000tik hona bezero barrixen zerren-

dak gora ein dau, kalian presentzia bat dakala erakutsiz. Gaiñera, kale-inkesta eitxerakuan, Drogeteniturririko zer dan ez dakiten gitxikin eitxen dogu topo. Sosiguz-sosiguz eindako lanak erreferente billakau gaitxuela esateko mokuan gagoz.

- Zelan dago gaur egun aldizkarixa?

Hil zorixan egondakuak gara: egoitza barik, ez oiñarriko maketaziño erremin-txarrik, ezta maketatzaille-rik. Eibarko ...eta kitto! astekariko zuzendari eta langilliei laguntzari esker, 6 hilla-

betetan berpizte prozesuan sartu giñan. Makaleko abenturia! Oin sarri pentsatzen dot: "Politxa izan zan; ha be ein genduan!". Denporiak garatzen eta aurrera eitxen juan gara: diseña hobetuz, azalían kolaria sartuz, sekziñuak aldatuz, tresnerixa barrixa jirauaz... Ez da estankau dan produktua, etengabian gagoz maketaziñua aldatzen, atalak barrizten, beti gaiñian.


- Zer botatzen dotsazu faltan?

Maiztasunian aurrera eitxia gustauko leuzkide, aste-

**"egindako lanak erreferente billakau gaitxuela esan geinke"**

**ILEAPAINDEGIA**  
**Izaskun**  
 Goienkale, 9 (Plaza San Martín)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

komunitateak aseguruak  
**San Pelayo**  
 aholkularitza fiskal eta juridikoa  
 Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**PUB YOMY**  
  
**Zubiaurre kalearen bihotzean**

kari bihurtu, atal batzuk barriztia, iritzirako atalen zabaltzia... Gai kontuetan uste dot ondo dauala; herriaren izaeria erreplejatzen dau, horregaitxik dira hain indartsuak kultura eta gizarte gaiak.

- Ermua eta Mallabia, zelan geratzen dira islatuta Drogeteniturriren bitxartez?

Gaitxigax erakusten dau kultur mugimendu haundix dauala. Nere tesian jasotako datuen arabera, Deba Barreneko 6 herri aldizkarixen artian, kultura gaixa gehixen agertzen dan aldizkarixa guria da. Ermuan jarduera kultural sendo bat dago eta aldizkarixak hori batzen dau. Gizarte gaien artian gero, herritarren ohitxuren atala edo herritarrek zerikusixa dakana oso indartsua da, herritarrek protagonista nagusi billakatuz.

- Eta Mallabixa?

Irlatxo bat da gure aldizkarixan. Egoitza Ermuan egoitxiak pillua zentralizatzen

dau eta Ermuak, dakan tamiñagaitxik be, barri gehixao sortzen ditxuala begi bistakua da. Arreta gehixao eskaiñi ahal jako Mallabixari. Sikieran lan talde haundixaua egongo balitz bertan...!

- Nork irakurtzen dau ?

Jende desberdiñak: gazte, heldu, edadeko... Irakurle kopuruaren datu zehatzik ez daukagu, baiña begiratu askok eta askok begiratzen dabe, batez be argazkixak. Laga leku baten eta gehixao lagatzeko eskatzen doskue, hegan ein dabela, jendiak hartu eta hartu, hainbarik geratu dirala eta. Ikerketetan manejatzen diran datuen arabera, aldizkari batkotxeko 2,2 - 3 lagunek irakurtzen dabe; gure 1750 aleko tiradiakin 5000tik gora izango lirake irakurliak.

- Danen gustoko aldizkarixa ein leike?

Jende guztixaren gustua eitxia gatxa izan arren, oreka bat mantentzen ahalegintzen gara eta horren kontziente gara. Batzuk esaten

**"Drogeteniturririko adin desberdiñetako irakurliak ditxu"**

doskue gai batzuren trataeran epelak garela; beste batzuk, ostera, borrokalarixegixak. Alde bateko eta beste kritiak jasotzia, ondo gabizen seiñale garbixa da guretzat.

- Aldizkarixarekiko lotura afektiborik bai?

Kaleratzen dogunontzat, hillero-hillero erditzen dogun umetxo bat da eta argi dago badauala afektibotasun bat. Eta gero oso esker oneko produktua dala: eindakua, inprentatik pasau ostian, kalian ikuste horrek bere satisfakziño puntua daka. Batzutan txikitasun konplexuekin bizi izan dot, beti konparatzen medio haundixekin. Sarrixegi bigarren maillakotzat hartu gaitxuela uste dot eta paradojixoki

herritarrei gehixen interesatzen jakuen informaziñua guk eskeintzen dogu: gertukua.

- Ze giza-funtziño betetzen dau?

Gizarte kohesiño baterako balixo dau nere ustez; askok aldizkarixaren bitxartez dake beste herritar batzuen barri. Esan izan dostie: "Txokauta nago ikusitxa jendiak zenbat gauza dakazen kontatzeko!". Bere ekarpenik esanguratsuen herritar komunitate ezberdiñen alkarren ezagutzada bideratzia da.


- Lantaldiak, eragiñik daka aldizkarixan?

Frogauta dago harek norabide bat markatzen dabela, gauza batzuk bestiak baiño gehixao agertzera bultzatu. Edozein kazetari, alkarrixketa bat transkribitzen dabenian, aukeraketa bat eitxen dago: "Hau sartuko da, zera hau ez..." Badaki medio baten noraiñok heldu leikian eta noraiñok ez. Joan Mari Torrealdai esaten dabenez: "Zentsura baiño autozentsura da gogorra". Beste pertsona batzuk osatu ezker lantaldia, beste modu batera izango zala? Agian gai batzuk sarrixao agertzera eingo eben, beste batzuen kalterako, baiña beti be ahaztu barik herrixaren nortasunak zeresan itzela dakala.

Estibalitz González



Irakurliak jaso aurreko zapatuan maketatzen da rebestia Elexosten.

**Pub SCORPIO**  
  
 Zubiaurre, 21  
 ERMUA

**Ardo banatzailea:**

Riedel	Hugel&Fills
Avgsyvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Canoson	Vriego
Luis Cañas	Laurona

**DISTRIBUCIONES ARRAL**  
 TELEFONOA: 943 17 60 75